

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

22/2023 Foru Dekretua. Onestea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegia onetsi zuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren aldaketa, baita Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2023ko araubide berezi erraztua onetsi zuen otsailaren 21eko 4/2023 Foru Dekretuarena ere

Batetik, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak eta, bestetik, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua artisten estatutuan jasotako atxikipenen arloko neurriak betetzeagatik aldatzen duen urtarrilaren 24ko 31/2023 Errege Dekretuak xedatzen dute jarduera ekonomikoen eta kapital higigarriaren atxikipenen eta konturako sarrerren tasa batzuk aldatu behar direla pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 8. eta 9. artikuluetan ezartzen duenez, foru aldundiek araubide erkideko lurralderako ezarrita dauden atxikipenen eta konturako sarrerren tasa berberak aplikatuko dituzte, jarduera ekonomikoen eta kapital higigarriaren etekinen kasuan.

Ondorioz, foru dekretu honen xedea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea, aipatutako zergaren eremuan araubide erkideko lurralderako ezarritako atxikipenen eta konturako sarrerren tasa berriak sartzeko.

Halaber, eta salbuespen gisa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2023rako araubide erraztuari uko egiteko epemuga luzatzen da.

Azkenik, indargabetu egiten da Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 20/2005 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotuta dauden ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidazioari buruzko 620 inprimaki-eredua eta horren edukia onesten dituen.

Foru Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, arau hori beharrezkoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzeko, Arabako Lurralde Historikoaren araudian araubide erkideko lurralderako ezarritako atxikipenen eta konturako sarrerren tasa berriak txertatzeko, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak eta urtarrilaren 24ko 31/2023 Errege Dekretuak sartutako aldaketen ostean. Proporzionaltasun printzipioaren arabera, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientziaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte-hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua

Bat. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 98. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta artikulu horri 3. apartatua gehitzen zaio, honela idatzita geratzen da:

“2. Erregelamendu honen 77. artikulua 2. paragrafoaren b) letran aurreikusitako gainerako kontzeptuen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, haien kalifikazioa edozein dela ere, ordaindutako diru sarrera osoei ehuneko 19ko atxikipen tasa aplikatzaren emaitza izango da, jabetza intelektualetik datozen etekinetan izan ezik.”

“3. Zergaren Foru Arauaren 37. artikuluan aipatzen diren jabetza intelektualetik datozen etekinen gaineko atxikipena ehuneko 15ekoa izango da.

Aitzitik, ehuneko 7koa izango da hainbat urtetan zehar sortuko diren egile eskubideen us-tiapenaren lagapenetik datozen konturako aurrerakinak direnean.”

Bi. 2023ko urtarrilaren 26tik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 82. artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

“1. Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioak direnean, ehuneko 15eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera profesionalak egiten hasten diren zergadunen kasuan, atxikipen tasa ehuneko 7koa izango da jarduerak hasten diren zergaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduerak hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek egoera horren berri eman beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzailea behartuta egongo da jakinarazpena behar bezala sinatuta gordetzera.

Ehuneko 7ko atxikipen tasa aplikatuko zaie honako hauei ordaindutako etekinei:

- Udal zerga biltzailei.
- Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru bitartekariak.
- Estatuaren Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen ordezkari komertzialak.

– Zergadunei, egoera hauetan: batetik, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen bigarren ataleko 851, 852, 853, 861 eta 862 taldeetan eta hirugarren ataleko 01, 02, 03 eta 05 multzoetan sartutako jarduerak garatzen dituzten zergadunen etekinak direnean. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak onetsi zituen uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi zituen aipatutako tarifak eta haiek aplikatzeko jarraibideak; beste batetik, lanbide jarduera horren kontraprestazioa, bere izaeratik, besteren kontura eginez gero, arte eszenikoetan, ikus-entzuzkoetan eta musikaletan diharduten artisten lan harreman bereziaren aplikazio eremuan sartutako litzatekeen zerbitzu-emate baten ondorio denean; eta, azkenik, jarduera hori garatzeko behar diren jarduera teknikoak edo osagarriak egiten dituzten pertsonen etekinak direnean, baina, beti ere, atal honetan aurreikusita dauden aurreko hiru egoeretako edozeinetan jarduera horien multzoak aurre-aurreko ekitaldian izan dituen etekin osoen bolumena 15.000 eurotik beherakoa baldin bada, eta zergadunak ekitaldi horretan lortutako jarduera ekonomikoen eta lanaren etekin osoen baturaren ehuneko 75 baino gehiago. Atxikipen tasa hori aplikatzeko, zergadunek inguruabar horiek betetzen direla jakinarazi behar diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzailea behartuta egongo da jakinarazpena behar bezala sinatuta gordetzera.”

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren araudia 2023rako.

2023. urterako ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren araudiari onespena ematen dion otsailaren 21eko 4/2023 Foru Dekretuaren laugarren xedapene-ko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“Laugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergako subjektu pasiboek, baldin erregimen berezi erraztua aplikagarri zaien jarduerak egiten badituzte eta hari uko egin nahi badiote edo ukoa ezeztatu 2023an, 2023ko apirilaren 25era arteko epea izango dute horretarako.”

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kargapeko ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidaziorako 620-TV eredu onetsi arte, indarrean jarraituko du ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kargapeko ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidaziorako 620 inprimaki ereduak, zeina Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 20/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 20/2005 Foru Dekretua, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kargapeko ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidaziorako 620 inprimaki eredu eta haren edukia onesten dituen, bai eta foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkako xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean; artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA